

Arabako Gorrak (Arabako Pertsona Gorren Elkarte)



Palencia kalea 6 zenbakia
arabakogorrak@hotmail.es
[Web orria](#)

“Arabako Gorrak” Arabako Pertsona Gorren Elkarte probintzia mailako gobernuz kanpoko erakundea da, 1972an sortua. Egoitza Gasteizko Palentzia kaleko 6. zenbakiko beheko solairuan du, eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan 100 zenbakipean inskribatuta dago. Gaur egun, elkarteak 69 bazkide ditu, eta horietatik 33 emakumeak dira eta 36 gizonak.

Arabako Gorrak elkarteak Arabako pertsona gorren bizi-baldintzak eta herritartasuna duintzea du eginkizun. Elkarteak garrantzi berezia ematen dio komunikazio-oztopoak ezabatzeari eta zeinu-hizkuntza sustatzeari nahiz hedatzeari, gorren komunitatearen funtsezko zutabe den aldetik, ofizialki onartua izan dadila helburu.

Vital Fundazioarekin lankidetz

VITAL FUNDAZIOAK, 2025ean, lehen aldiz eman dio laguntza elkarteari zeinu-hizkuntza sustatu eta zabaltzeko, ekainaren 14an egingo den Zeinu Hizkuntzaren Egunean (ZHE).

Zeinu Hizkuntzaren Egunak, hizkuntza horri ikusgarritasuna emateko helburua izateaz gain, badu haren erabilera, hezkuntza, lan eta arlo soziosanitarioetatik harago normalizatzeko helburua ere. Zenbat eta onarpen sozial handiagoa izan, orduan eta gehiago aurreratuko dugu herritartasun inklusibo, enpatiko eta askotariko baterantz. Zeinu-hizkuntza funtsezkoa da ideiak transmititzeko, harreman pertsonaletarako eta kultura-trukerako. Hortaz, hizkuntza horren balioa aitortzea, pertsona gorrek eta gor-itsuek berdintasunean bizitzeko duten eskubidea aitortzea ere bada.

Proiektu hori gorren komunitateak sorkuntza artistikorako, kultura-ondasunez baliatzeko eta bizitza kulturalean bete-betean parte hartzeko duen eskubidearen defentsan ere oinarritzen da. Oinarrizko eskubide horiek ez dira mugatu behar hizkuntza-kontuengatik, ezta gaitasun dibertsitateagatik ere. Zeinu-hizkuntzaren eta gorren kulturaren ezagutza eta balorazioa bultzatzea gizarte bidezkoagorantz eta inklusiboagorantz aurrera egitea da.